



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/02/15

Bilbao Airerako "plan estrategikoa" eta haren eraginkortasuna neurtzeko "mekanismoak" eskatuko ditu Foru Aldundiak

Loiuko aireportuaren sustapenerako Bilbao Air soziedadearen gastuak soziedadearen "helburuakaz bat datozala" egiaztatu ostean, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako foru diputatuak Batzar Nagusien aurrean gaur egin dauen agerraldian, erakunde horrek "plan estrategikoa" eta bere jardueraren "eraginkortasuna neurtzeko eta kontuak aurkezteko mekanismoak" behar dituala adierazo dau.

Ahaldun Nagusiaren presentzia eskatu dauen Podemos Bizkaia taldearen ekimenez Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean izan dauen esku-hartzean, Merkataritza Ganberak urtarrilaren 28ko Administrazio Kontseiluan egindako eskariaren ostean gastuak "aireportua sustatzeko soziedadeari jagokozan jarduerari apliketan jakezela ikusten dala azpimarratu dau Vicente Reyesek. Funtzionamenduko ohiko gastuez aparte, aireko operadoreakaz izan beharreko hartu-emonetara, aireportuaren sustapenera, publizidade korporatibora... zuzentzen dira".

Diputatuak adierazo dau ez jakola "astakeria" iruditzen soziedadeak bere jarduerako "16 urteetan" "2.749.000 euro" gastu izana. Azpimarragarriena, bere eretxiz, gastu hori "arrazoizkoa izan ete dan, Bilboko Aireportua sustatzeko helburura egokitu dan eta eraginkorra izan dan ala ez da". Holan, eta gastu batzuk aitatu eta zehaztu ostean, "gastuaren egiturari eutsi egin jakola Bilbao Airen ibilpide osoan, eta gastu hori soziedadearen helburuetara bideratu dala" azpimarratu dau Reyesek.

Aztertutako gastuen artean, Merkataritza Ganberak zenbait zerbitzu (kontabilitadea, idazkaritza, azterlanak eta estadistika, prentsa zerbitzua, komunikazio aretoa, internet, telefonoak) dirala eta urtean fakturautako "13.000 euroak" dagoz; inkurritutako gastuak, "soziedadearen gastu osoaren %10 eta %16 artean, aireportua sustatzeko bidaiak dirala eta; edo "gastu osoaren %1 eta %2,6 artean, Lufthansa, Air France, Easy Jet... moduko eragileakaz egindako bazkarietan". Reyesek autortu dauenez, partida horreen artean badago faktura "deigarriren" bat, "3.452 euroko" bazkari bat, adibidez, Lufthansako 50 pertsona ingururentzako konbentzino batean egindako gonbidapena dala eta. "Ez da beste munduko gastua zenbat pertsona egon ziran kontuan izanda, eta helburua linea gehiago erakartea zan, baina kontua holango gastuak helburuakaz proportzinoan dagozan ala ez da", esan dau.

Beste alde batetik, urtero auditoria "independenteak" egiten dirala azpimarratu dau Reyesek. Azkenak, 2014koak, soziedadearen urteko kontuek "soziedadearen ondarearen eta finantza egoeraren irudi zuzena" erakusten dabela adierazoten dau. 2012ko kontuak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

fiskalizau dituan Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEP-TVCP) be “gauza berbera” esaten dau.

Euskadiko ganerako uriburuetan eta beste uri batzuetan gertatzen dan moduan, sustapenera zuzendutako holango soziedadeak beharrezkoak dirala uste dau, “linea barriak eta Bilboren, Bizkaiaren eta Euskadiren konektibidadea hobetzeko aukera emongo daben maiztasun gehiago aurrera eroan ahal izateko”; “aireportuak bere inguruneagaz dauen konektibidadea hobetzeko”; “Bilbon konpainia barrien eragiketa zentroak ezartea bultzatzeko”; “Bilboko aireportuaren bilakaerearen eta Bizkaiaren garapen ekonomikorako dauen garrantziaren barri emotea eta baloretako”; “aireportuak eragina dauen udalerrietako biztanleen bizitza kalidadea bultzatzeko”; edo “erakundeen arteko lankidetzeta publiko-pribadua sustatzeko”.

Eta helburu horreek bete ahal izateko, Bilbao Airek komunikazino eta aireportuaren sustapen jarduerak gauzatu ditu, eta horreei esker, bitartekaritza lanak egin ditu, AENAgaz batera, emaitza “garrantzitsuak” lortu ahal izateko, Air Francegaz 2014an Bilbo-Amsterdam hegaldia zabaltzea; linea bat Zurichera (2015ean Swiss International Airegaz); British Airways konpainia itzultzea 2015ean, egunean hegaldi bi eskiniz; Easy Jetegaz Genevara eta Manchesterrera doazan lineak; Alitaliagaz Erromara doana; edo udan eskintzen dan Pragarako linea. Lorpen horreen artetik “%10 baino lortu ez baleu be, 16 urteotako gastua justifikauta egongo litzateke”, esan dau.

Dana dala, Reyesk autortu dau soziedadeak ez daukala “Bilbao Airek jarduketa horreetan dauen partaidetzaren eraginkortasuna neurtzeko prozedurarik”. Hori dala eta, uste dau “Bilbao Air zelan hobetu ikusteko unea dala, beharrezkoa dan bere jarduereta gehiago zabaldu eta ebaluetako modukoa izan daiten”. Batzarretako taldeei deia egin deutse, euren ekimenen bitartez erakundea hobetzen lagundu daien.

Diputatu eta Bilbao Aireko kontseilariak zehaztu dauenez, Foru Aldundiagaz, Eusko Jaurlaritzagaz, Merkataritza Ganberagaz eta bost udalakaz batera parte hartzen dauen erakundearen hurrengo Administrazino Kontseilura eroango dituan proposamenen artean “espezializautako kontsultoretza bategaz plan estrategikoa planteetea egongo da, horren barruan, gitxienez, asmo handiko negozio plana eta lorpenak definiduteko aukerea emongo daben ebaluazino sistemak sartuz”, eta baita “beste inoiz egin dan moduan, Basquetoursegaz, Bilbotourregaz eta xedea Bizkaia ezagutzera emotea dauen beste edozein erakundegaz izan beharreko lankidetzeta indartzea” be.

BATZARRETAKO TALDEAK

Podemos Bizkaiak Reyesi gogoratu deutsoenez, HKEP-TVCP-ek 2014an adierazi eban ezinezkoa zala Bilbao Airen eraginkortasuna neurtzea, eta azpimarratzen eban ez egoala lankidetzarik AENAgaz, azpiegituraren jaube eta haren kudeaketaren arduradun bakarragaz. PP taldeak, bere aldetik, soziedadearen gastu guztiak zehatz-mehatz justifiketea eta erantzukizun politikoak hartzea eskatu dau, eta esan dau “argi eta garbi



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

daukala” dirua “helburu pertsonaletara” zuzendu zala. “Nik ziurtasun hori izango banau, epaitegietan egongo nintzateke”, erantzun deutso Reyesek.

EH Bilduk, 2014an Batzar Nagusietan soziedadea desegitea eskatzea eta orain defendidutea aurpegiratu deutse diputatuari eta Batzar Nagusietako talde sozialistari, eta gehitu dau hori EAJ-PNV-ri egin beharreko ordainketea dala Foru Gobernuako parte izateagaitik. Reyesi gogoratu deutso, baita be, Patxi Lópezen Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzea kendu eutsala, Jon Gangoiti gerente eta behargin bakarrak ez ebazalako gastuak justifiketan. “Beharrezkoa da gastuen jarraipen politikoa egitea”, adierazo dau koalizino abertzaleak. Zigor Isuskizaren eretziz, “Bilbao Air Gangoitirentzat ‘ad hoc’ eraturako ate birakaria” da.

Gobernua eusten daben talde biek, EAJ-PNV-k eta PSE-EE-k, ontzat emon ditue Reyesen azalpenak. Sozialistek azpimarratu dabe HKEP-TVCP-ek Bilbao Airek legezko araudia beteten ebala esan ebala, eta haren kontuek soziedadearen egoeraren irudi zuzena emoten ebela. Jeltzaleek, euren aldetik, “eskandalu faltsuak antolatu izana” aurpegiratu deusie oposizinoari, “guzur baltzen” bitartez, eta azkenengo urteotan AENAREN eta Bilbao Airen arteko hartu emona indartu egin dala azpimarratu dabe. Jon Andoni Atutxa jeltzaleak agerraldia, alderdi batzuek “jazarpen politikoagaz” jarraitzeko helburu “argiaren” barruan sartu dau.

VENEZUELAKO ADIERAZPENAREN ALDEKO ERETXIA

Beste alde batetik Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak bat egin dau Venezuelako politika, kultura eta gizarte arloetako pertsona garrantzitsuek sinatu daben, eta eremu ideologiko demokratiko osoko alderdi politikoez eta hainbat erakunde publikok, pribaduk eta gobernuz kanpoko zenbait erakundek bultzatzen daben aldeko “Golpe a la Democracia. Elecciones Parlamentarias en Venezuela 2015” deritxan Adierazpenagaz. Bertan eskaerea egiten da Simón Bolívarren herriak hautestontzietan adierazo dauen borondate demokratikoa errespetetako.

EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen aldeko botoakaz eta EH Bilduren eta Podemos Bizkaiaren kontrakoakaz onartu dan adierazpena Nicolás Maduro egungo presidentearen kontrakoa da, “oposizinoako diputatu batzuen aukeraketearen kontra egiteko ahaleginarengaitik, orain arte oposizinoan egon diran alderdiek Asanblada Nasionalean gehiengoa izan ez daien”, azaldu dau Arturo Aldecoa proposamena aurkeztu dauen PP taldeko batzordekideak.

Beste alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusiek, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoakaz eta EH Bildu, PP eta Podemos Bizkaia taldeen aldekoakaz, ez dabe onartu talde morearen arauz besteko proposamena, “Aldundiari eskaria egiteko, Blas de Otero olerkariari “Bizkaitar Argia-Ilustre de Bizkaia” aintzatespena emon deion, jaio zanetik ehun urte beteten diranean”. Jeltzaleek eta sozialistek esan dabe euren kontrako botoa ez dala Blas de Otero aintzatespen horretarako egokia ez dalako, Podemosek bere



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

proposamena Aldundira bideratzeko aukeratu dauen prozedurarengaitik baino. Euren berbetan, badago aintzatespen horreetarako hautagaiak proposatzeko prozedura arautua, urtero Foru Gobernu taldeak argitaratzen dauen dekretu baten bitartez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

15/02/16

Diputación propondrá un "plan estratégico" para Bilbao Air y "mecanismos" para medir su eficiencia

Después de verificar que los gastos de la sociedad de promoción del aeropuerto de Loiu Bilbao Air están “en concordancia con los objetivos” de la sociedad, el Diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha señalado hoy en una comparecencia en las Juntas Generales que dicha entidad necesita un “plan estratégico” y “mecanismos para medir la eficiencia y dar cuentas” de su actividad.

Durante su intervención en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, a petición de Podemos Bizkaia, que solicitaba la presencia del Diputado General, Vicente Reyes ha insistido en que, de la información remitida por la Cámara de Comercio tras su petición cursada en el Consejo de Administración de Bilbao Air del 28 de enero, se ve que los gastos “se aplican a actividades propias de una sociedad de promoción del aeropuerto. Aparte de los gastos normales de funcionamiento, se dirigen a actividades relacionadas con la relación con operadores aéreos, participación en ferias, promoción del aeropuerto o publicidad corporativa”.

El diputado ha señalado que no le parece un “disparate” los “2.749.000 euros” gastados por la sociedad en sus “16 años” de actividad. Lo reseñable para él es si este gasto ha sido “razonable, si se ha ajustado al objetivo de promocionar el Aeropuerto de Bilbao y si ha sido eficaz”. En este sentido, y tras enunciar y detallar algunos gastos, Reyes ha destacado que “la estructura de gasto se ha mantenido durante toda la vida de Bilbao Air y que ese gasto se ha destinado a los objetivos de la sociedad”.

Entre los gastos analizados figuran “los 13.000 euros anuales” facturados por la Cámara de Comercio por algunos servicios (contabilidad, secretaría, estudios y estadística, servicio de prensa, salas de comunicaciones, internet, telefonía...); los gastos incurridos, entre un 10 y un 16% del gasto total de la sociedad, por viajes para promocionar el aeropuerto; o entre un 1 y un 2,6% del gasto total, en comidas con agentes y operadores como Lufthansa, Air France, Easy Jet”. Reyes ha reconocido que entre estas partidas existe alguna factura “llamativa” como una comida de “3.452 euros” que se debe a la invitación en una convención para unas 50 personas de Lufthansa. “No es un gasto enorme para tantas personas y el objetivo era traer nuevas líneas, pero la cuestión es si gastos como este son proporcionales al objetivo”, ha dicho.

Por otra parte, Reyes ha subrayado que todos los años se hacen auditorías “independientes”. La última, de 2014, aprecia que las cuentas anuales de la sociedad expresan la imagen “fiel del patrimonio y de la situación financiera de la sociedad”. También, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP), que ha fiscalizado las cuentas de 2012, dice “exactamente lo mismo”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Como sucede en el resto de capitales vascas y otras ciudades, cree que este tipo de sociedades promocionales son "necesarias" para "favorecer el desarrollo de nuevas líneas y frecuencias que permitan mejorar la conectividad externa de Bilbao, Bizkaia y el País Vasco; mejorar la conectividad del aeropuerto con el entorno; favorecer el establecimiento de centros de operaciones de nuevas compañías en Bilbao; difundir y valorar la evolución del aeropuerto de Bilbao y su relevancia para el desarrollo económico de Bizkaia; fomentar la calidad de vida de los habitantes de los municipios en los que tiene incidencia el aeropuerto; o promover la colaboración interinstitucional publico-privada".

Y para cumplir con estos objetivos, Bilbao Air ha hecho actividades de comunicación y promoción del aeropuerto que han servido para intermediar, junto con Aena, en conseguir resultados "importantes", como abrir un vuelo Bilbao-Amsterdam en 2014 con Air France; una línea a Zurich (en 2015 con Swiss International Air); el retorno de British Airways en 2015 con dos vuelos diarios; las líneas a Ginebra y Manchester con Easy Jet; la línea a Roma de Alitalia; o la línea a Praga en verano. "Aunque hubiera aportado solo un 10%" de estos logros, "el gasto de los 16 años estaría justificado", ha dicho.

Reyes ha reconocido, sin embargo, que la sociedad no dispone de un "procedimiento que mida la eficacia de la participación de Bilbao Air en esas actuaciones". Por eso, cree que "es el momento de ver cómo mejorar Bilbao Air, para que su actividad, que es necesaria, tenga mayor alcance y sea evaluable". Ha emplazado también a los grupos junteros a mejorar la gestión de la entidad con sus iniciativas parlamentarias.

El diputado y consejero de Bilbao Air ha concretado que sus propuestas en el próximo Consejo de Administración de la entidad, en el que participan junto a la Diputación, el Gobierno vasco, la Cámara de Comercio y cinco ayuntamientos, serán plantear "un plan estratégico con una consultoría especializada que incluya, al menos, un plan de negocio ambicioso y sistemas de evaluación que permitan definir los logros" e "intensificar la colaboración, que ya ha hecho en alguna ocasión, con Basquetours, con Bilbotour y con cualquier otro organismo público cuya misión sea dar a conocer Bizkaia".

GRUPOS JUNTEROS

Podemos Bizkaia le ha recordado a Reyes que el TVCP ya advirtió en 2014 de que no era posible medir la eficacia de Bilbao Air y que destacaba que no había colaboración con AENA, propietaria de la infraestructura y única responsable de su gestión. El PP, por su parte, ha reclamado una justificación al detalle de todos los gastos de la sociedad, ha reclamado la asunción de responsabilidades políticas y ha expresado su "convencimiento" de que el dinero se destinó "a fines personales". "Yo estaría en los tribunales con esa certeza", le ha respondido Reyes.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EH Bildu ha reprochado al diputado y al grupo socialista en Juntas Generales que en 2014 reclamaran en Juntas Generales la disolución de la sociedad y ahora la defienda, asumiendo que es el "pago" que debe hacer al PNV por formar parte del Gobierno foral. También ha recordado a Reyes que el Gobierno vasco de Patxi López le retiró la subvención porque Jon Gangoiti, su gerente y único trabajador, no justificaba los gastos. "Hay que realizar un seguimiento político de los gastos", ha exigido la coalición abertzale. Para Zigor Isuskiza, Bilbao Air es "una puerta giratoria creada ad hoc para Gangoiti".

Los dos grupos que sustentan el Gobierno, PNV y PSE-EE, han dado por buenas las explicaciones de Reyes. Los socialistas han incidido en que el TVCP aseguró que Bilbao Air cumplía con la normativa legal y que sus cuentas expresaban una imagen fiel de la situación societaria. Los jeltzales, por su parte, ha reprochado a la oposición que "orqueste falsos escándalos" mediante "calumnias" y ha destacado que, en los últimos años, se ha intensificado la relación entre AENA y Bilbao Air. El jeltzale Jon Andoni Atutxa ha enmarcado la comparecencia en un "claro" ejemplo de continuar con la "persecución política" de algunos partidos.

APOYO AL MANIFIESTO DE VENEZUELA

Por otro lado, la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, se ha sumado al manifiesto "Golpe a la Democracia. Elecciones Parlamentarias en Venezuela 2015", firmado por personalidades del ámbito de la política, la cultura y la sociedad venezolana, apoyado por partidos políticos de todo el espectro ideológico democrático y diversas entidades públicas, privadas y organizaciones no gubernamentales, en el que piden que se respete la voluntad democrática expresada en las urnas por el pueblo de Simón Bolívar.

Este manifiesto, aprobado con los votos a favor de PNV, PSE-EE y PP, y el voto contrario de EH Bildu y Podemos Bizkaia, supone un rechazo al actual presidente venezolano Nicolás Maduro, "por su intento de impugnar la elección de varios diputados opositores para evitar que los partidos de la hasta ahora oposición tengan mayoría en la Asamblea Nacional", ha explicado el popular Arturo Aldecoa, apoderado del grupo proponente.

CENTENARIO DEL NACIMIENTO BLAS DE OTERO

Por otra parte, el parlamento vizcaíno ha rechazado con los votos en contra de PNV y PSE-EE, y el sí de EH Bildu, PP y Podemos Bizkaia, una proposición no de norma del grupo morado que solicitaba "instar a la Diputación a la concesión de la distinción "Bizkaitar Argia-Ilustre de Bizkaia" al poeta Blas de Otero, cuando se cumplen cien años de su nacimiento". Jeltzales y socialistas han coincidido en señalar que su negativa no va en contra de la candidatura de Blas de Otero para tal distinción, sino del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

procedimiento elegido por Podemos para hacer llegar la propuesta a la Diputación. Según ellos, existe un procedimiento reglado para hacer llegar candidatos a estos premios a través de un decreto que publica todos los años el Gobierno foral.